

GIZARTE HEZITZAILEEN  
EUSKADIKO ELKARGOA

COLEGIO DE EDUCADORAS  
Y EDUCADORES SOCIALES  
DEL PAÍS VASCO

GHEE  
CEESPV



# ZERBITZUEN KATALOGOA

## **GHEE-CEESPV**

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa  
Colegio de Educadoras y Educadores  
Sociales del País Vasco  
C/Bailén, 1, 3º, Pta 7. 48003-Bilbao  
**Tel/Fax.** 944.160.397  
**e-mail:** ceespv@ceespv.org  
**Web:** www.ceespv.org

## LAN POLTSA

Zerbitzu honen bidez, GHEE-CEESPV-k interesatuak dauden elkargokideei, Gizarte Hezitzaileak sarbidea duten lanpostu berriei buruz informatzen die.

Eskaintzak, lanpoltsan izen emanda duten pertsona guztiei korreo elektronikoaren bidez bidaltzen zaie.

Zerbitzurako sarbiderako izen ematea, elkargoko web orriaren bidez egingo da. Edozein momentutan egin daiteke, baina urtero berritu behar dira.

## G H E E - C E E S P V - K

## DOKUMENTAZIO ZENTROA

elkargoko dokumentazio

zentruko kontsulta eta mailegu zerbitzua du elkargokideen azterketa, analisi eta hausnarketa beharrak asetzeko helburuarekin.

Elkargokide guztiek eskuragarri dute, Elkargoak duen Dokumentazio Zentruko fondoan erabilera eta kontsulta.

Sartzeko bideak honako hauek dira:

- Elkargoko web orrialdea kontsultatuaz [www.ceespv.org](http://www.ceespv.org), Dokumentazio Zentruko arloan.
- Elkargoko egoitzan eskuragarri dauden materialak kontsultatuaz.
- Elkargoko egoitzan (Bilbao) dokumentu, liburu, aldizkari etab.-en mailegua eskatuaz.
- Telefono edo korreo elektroniko bitartez dokumentuaren erreserba eginaz.

## ORIENTZAI O ETIKO ETA DEONTOLOGIKOA

I k u s p e g i  
e t i k o t i k

lanbidearen praktika ona , eta honekin batera Gizarte Hezitzaileko langileen artean Kodigo deontologikoaren ezagutza eta ezarpena helburu izanda, orientazio etiko eta deontologiko zerbitzuarekin kontaktzen dugu, lanean izaten diren zalantza etikoetan laguntza eta aholkularitza izateko.

Elkargokide guztiak Orientazio Etiko eta Deontologiko zerbitzua eskuragarri dute elkargoarekin harremanetan jarriaz.

Jasotako eskaera etiko eta deontologikoak aztertu eta erantzun egiten dira eskatu duen pertsonari informe bat bidaliaz, egokienak iruditzen diren orientazio etiko eta deontologikoekin.

## **BEREZKO ESKAINTZATIK EKINTZA**

Profesionalen eskuhartze hezitzailean gaitasun eta hobekuntzetan elkarlana egiteko helburuarekin, elkargoak elkargokideen iradokizun eta behar formatiboekin diagnostiko bat egiten du eta elkargokideentzat dirulaguntzetako edo ordaindugabeko formazioetarako urteko plangintza bat ezartzen du, lanbidearekin harremana duten aspektu desberdinetan aldiro ekintza formatiboak eskainiaz.

Elkargokide guztiak informatuak dira ekintza formatibo hauetaz, korreo elektronikoko eta eskutitzen bitartez.

## **ARGITALPENAK**

### **GIZABERRI BOLETINA**

GHEE-CEESPV-ak urtean hainbat aldiz boletín bat editatzen du, elkargokideei bere estrukturako Ekintza plana eta urteko programabetetzeko ekintzez informatuaz.

Boletinak Departamentu, Komisio eta Elkargoko lan talde ezberdinetan gauzatzen diren ekintzak jasotzen ditu, Elkargoaren jarraibidean gauzatzen diren garrantzizko informazioa eta lanbidearen garapenarekin zerikusia duten aspektu ezberdinak nabarmenduaz.

Boletín hau, elkargokide guztiei korreoz bidaltzen zaie eta elkargoko web orrian irakur daiteke, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz.

### **REVISTA GIZABERRI ALDIZKARIA**

GHEE-CEESPV-ak urtero argitalpen hau gauzatzen du, tekniko, esperimental eta lanbidearekiko aurrerapen eta garapen izaera duena.

Elkargoko aldizkariak, ez du lanbidearen inguruan gertatutako alderdi ezberdinetaz eta elkargoaren funtzionamenduaz soilik informatzea nahi, lanbidearen eratze eta garapenarekin zerikusia duten Alberdi teoriko eta teknikoak iritsarazi nahi ditu.

Horretarako, aldizkariak pertsona eta profesional erreferenteen eta beraien aportazioa egin nahi duten elkargokide ezberdinen partaidetza bilatzen du, gai eta alderdi ezberdinak gauzatzeko.

Elkargokide guztiei korreoz bidaltzen zaie eta aldizkariko artikulua guztiak elkargoko web orrian irakur daitezke, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz.

## WEB ORRIA

Elkargoko web orria [www.ceespv.org](http://www.ceespv.org), etengabeko lanaren eta Elkargotik garatzen diren lan ezberdinen aurkezpen karta eta memoria da. Elkargoaren interesetara eta elkargokideen zerbitzura zuzendua dago, halaber, erakunde publiko eta pribatuek edukietara sartzeko aukera zabalik dute. Informazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatu daiteke.

## GHEE-CEESPV-ak

## AHOLKULARITZA JURIDIKOA

aholkularitza dohainiko

zerbitzua elkargokideen eskura du, non bertan, arlo juridiko eta lan arloarekin erlazionatutako beraien laneko edozein aspektuekiko ardura jasoko den, beraien lanbideko egunerokotasuneko jardunean sor daitezkeen egoera ezberdinetara orientatua egongo dena.

Elkargokideeen eskura dagoen zerbitzu honen erabilera, honako modu ezberdinetan gauzatu ahal izando da:

Korreio elektronikoaren bitartez

Telefonoz

Presentzialki, aurretik hitzordua eskatuta

## ASEGURUAK

Elkargotik elkargokideei  
aseguruen oinarrizko

estaldura eskaintzen da, lanbidearen jarduera babesten duena.

Behar izanez gero, eskeinitako beste aseguru batzuk erabil daitezke, horretarako Elkargoarekin kontaktuan jarri beharko da, jarraitu beharreko pausuez informatua izan dadin.

**Defentsa Juridikoaren Aseguruarekin**, elkargokideek lanbidearen jardueran gertaturiko edozein egoeretan oinarrizko estaldura duen laguntza legala izango dute.

Elkargokide guztiek zerbitzu honen onura izango dute, Elkargoko urteroko kuotan jasoa baitago.

**Behin behineko Ezgaitasun Aseguruaren** helburua, egunero kantitate ordainketa bat bermatzea da, istripu edo gaixotasun baten ondorioz sortutako behin behineko egoera fisiko batean baldin badago, aseguratuaren lanbidearen jarduna gauzatzeko ezgaitasuna mugatzen du.

Interesaturiko elkargokide guztien eskura dago kontratatze aukera, Elkargokidea izateagatik azkeneko prezioan % 26eko jeitsiera izango duelarik.